

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
GRADU BUKAERAKO LANA	151329	2021-2022
Titulazioa	Maila	Sehilekoa
HAUR HEZKUNTZA	4	2
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
DERRIGORREZKOA	6	EUSKARA / GAZTELANIA / INGELESA
Irakaslea(k)		

Justifikazioa

Graduko ikasketen amaieran Gradu Bukaerako Lana egin beharko da. Lan hori ikasketa planen azken aldian egingo da eta titulazioan hartutako prestakuntzarekin bat datozen ezagutza, trebetasun eta jarrerai lotutako gai bat sakontzera bideratu beharko da, oinarrizko prestakuntzaren esparruan, arloetako didaktiketan edo aipamen jakin batean.

Gradu Bukaerako lana proiektu, txosten edo azterlan originala da eta idatzizko formatuan entregatu beharko du ikasleak. Horrez gainera, lanaren ahozko defentsa egin beharko du epaimahai baten aurrean. Modu horretan erakutsiko ditu lanari lotutako konpetentziak.

Gradu Bukaerako Lanak, beste edozein ikasgai moduan, konpetentzia batzuk ditu esleituta. Konpetentzia horiek graduaren zehar landu eta eskuratu ditu ikasleak, eta graduaren amaierako ikasgai honetan erakutsi beharko ditu.

Aurrebaldintzak

Gradu Bukaerako Lana defendatu eta ebaluatu ahal izateko, Practicum I gaindituta izan beharko da, eta Haur Hezkuntzako Graduaren nahitaezko ikasgai guztiak gaindituta izan beharko dira edo haietan aldi berean matrikulatuta egon beharko da, BAMEko matrikulazio egutegian ezarritako epe orokorrean.

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

- 1. G.O. SEN ETIKOA:** Norberaren edo besteen on moralera positiboki makurtzea (hau da, ongia den edo esan nahi duen guztira, zentzuzko bizipena den guztira, pertsonaren errealizazioa dakarren guztira, justizia den edo esan nahi duen guztira) eta on moral horretan irautea.
- 2. menderatze maila:** Balio etikoak eta sentiberatasun morala identifikatzea, ezagutzea eta aplikatzea.
- 2. G.O. AHOZKO KOMUNIKAZIOA:** Hitzen bidez norberaren ideiak, ezaguerak eta sentimenduak argi eta egoki adieraztea, egoeraren eta entzuleen ezaugarrietara egokituz, haien ulerkuntza eta atxikimendua lortzeko.
- 3. menderatze maila:** Entzuleak erraz limurtzea eta atxikitzea, mezua eta bitartekoak egoeraren eta entzuleen ezaugarrietara egokituz.
- 3. G.O. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA:** Beste pertsona batzuekin eraginkortasunez erlazionatzea, norberak pentsatzen edota sentitzen duena argi adieraziz, idazkera eta adierazpide grafikoak lagun dituela.
- 2. menderatze maila:** Idatziz erraztasunez komunikatzea, testuaren edukia eta lagungarri grafikoak egituratuz, irakurlearen ulermena eta interesa errazteko, luzera ertaineko idazkietan.

Berriazko gaitasunak

- 1. B.G.** Modu garbi eta zuzenean komunikatzea, irakaskuntzaren hizkuntzaz, ahoz eta idatziz, irakaskuntza-lanbidearekin zerikusia duten testuinguruetan, bai mintzakide espezializatuei eta bai espezializatu gabekoei.
 - Elkarrizketa-estrategiak modu egokian erabiltzea ikasgelan, ikaskuntza konpartitua gidatzeko.
 - Azalpena planifikatzea ikasleen ulermen mailak kontuan hartuz, eta hizkuntzen ikaskuntza-egoerei heltzea kultura eta hizkuntza anitzeko testuinguruetan.
- 2. B.G.** Norberaren garapen profesionalaren protagonista izatea, oinarrizko prestakuntzan zehar jasotako ezagutzak integratuz eta erlazionatuz, eta aukeratutako ezagutza arloan sakondu eta ekarpenak eginez.
- 3. B.G.** GBLan egiten diren diseinu, ikasketa eta oinarrizko planteamenduetan familia, gizarte eragileak eta ikastetxearen testuingurua kontuan hartu dira, elementu desberdinen bidez.

Edukiak

Gradu Bukaerako Lanaren gaia Haur Hezkuntzako graduarekin lotuta egon behar da, eta graduan zehar landutako ezagutzetan sakontzeko aukera emango dio ikasleari. Gaia edozein izanda ere, lan mota desberdinak egin daitezke: lan bibliografikoak, ikerlanak, azterlanak zein diseinu lanak. Lan guztiek izango dituzte oinarrizko atal batzuk: sarrera, oinarri teorikoak, metodologia

I. LAN BIBLIOGRAFIKOAK

Lan mota honek Haur Hezkuntzako graduarekin lotutako gai edo arlo baten inguruan dagoen informazioa batu, eta sintesi hausnartua egitea eskatzen du. Lan honen garapenean gai bat sakontasunez landuko da, azterketa bibliografikoa eginez, ikuspegi desberdinak aurkeztuz, azterketa kritikoa eginez edo aldeko eta aurkako ikuspegiak aztertuz, besteak beste.

II. AZTERLANA

Azterlan asko kasu azterketan oinarritzen dira, hau da, irakaskuntza zereginekin loturiko esperientzietan: metodologiak, ikastetxeko hezkuntza proiektuak, Ikastetxeko curriculumak, metodologiak, umeen garapena. Baina material didaktikoen azterketa kritikoa ere izan daiteke lan honen abiapuntua.

III. IKERLANA

Ikerlana egiteko ezinbestekoa da ikerketa proiektua diseinatzea, edota diseinatzeaz gainera, burutu ere egin daiteke proiektu hori. Ikerlanak honako zeregin hauek eskatzen ditu: galdera edo hipotesiak planteatu, oinarri teorikoak ezarri, datu biltzea sistematikoa diseinatu edota egin, ondorioak batu, hasierako hipotesi edo balizko emaitzak egiaztatu, besteak beste.

IV. SORKUNTZA ETA DISEINU LANA

Irakaskuntza praktikan ezinbesteko diren baliabideen diseinua honako esparru hauetan kokatu daiteke: Curriculumaren planifikazioa, metodologiaren aukeraketa eta aplikazioa sekuentzia didaktiko edo proposamen didaktikoetan, ebaluazioaren planteamendua proposamen didaktiko desberdinetan. Arlo hauetako edozein aukeratuta eraiki daiteke lan mota hau, betiere, aurrekoetan moduan, marko teoriko bat oinarri hartuta.

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Gradu Bukaerako Lanean ikasleek lan ordu asko egingo dituzte bakarrean. Hala ere, lan autonomo hori gidatua izango da, eta tutoretzak antolatuko dira horretarako. Tutoretza saioak garrantzitsuak izan daitezke prozesuaren une hauetan:

- Azken proiektuaren helburu zehatzak finkatzeko eta gaia planteatu eta mugatzeko orduan, bereziki, sakontasuna, denbora eta baliabideak zehazteko.
- Gaiaren errebisio bibliografikoa egiteko orduan, edo erabiliko diren oinarri teorikoak

planteatzeko orduan.

- GBLren metodologia zehazteko.
- Emaitzen azterketa, ondorioak, ekoizpena... egin edo aurkezteko orientazioak jasotzeko unean.
- Lana idazteko unean, informazioaren antolaketari buruzko oharak jasotzeko.
- Lanaren aurkezpena prestatzeko.

Ebaluazioa

KONPETENTZIAK	Ebaluazio edukia ¹	Ebaluazio elementuak
G.O.1. SEN ETIKOA	Edukiaren egokitasuna eta Autonomia %75	IDATZIZKO TXOSTENA AHOZKO AURKEZPENA
G.O. 2. NORBERE GARAPEN PROFESIONALAREN PROTAGONISTA IZATEA		Edukiaren egokitasuna eta ezagutza: %55
		LANAREN ELABORAZIO PROZESUA
		Autonomia eta ekimena prozesuan zehar: %20
G.O.2. AHOZKO KOMUNIKAZIOA	Adierazpena %25	AHOZKO AURKEZPENA % 25
G.O.3. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA		Ahozko adierazpena:
BG1. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA		- Antolaketa - Zuzentasuna

Dokumentazioa

González García, J.M.; León Mejía, A. eta Peñalba Sotorrío, M. (2014). *Cómo escribir un trabajo de fin de grado: Algunas experiencias y consejos prácticos* Madrid: Síntesis, D.L. 2014

Bartolomé et al., (2012). *El trabajo de fin de grado: guía para estudiantes, docentes y agentes colaboradores*. Madrid: Mc Graw Hill, D.L.

León, Orfelio G. (2016). *Cómo redactar textos científicos y seguir las normas APA 6ª. (Para los trabajos de fin de Grado, de fin de Máster, tesis doctorales y artículos)*. Madrid: Iburgarceta publicaciones.

Sánchez et al., (2016). *Trabajos de fin de grado y de postgrado: guía práctica para su elaboración*, Archidona (Málaga): Ed. Aljibe

¹ Gradu Bukaerako Lana gainditzeko ebaluazio eduki guztiak gaindituta izan behar dira:

- Edukiaren egokitasuna eta Autonomiaren %35
- Adierazpena %15